**ERREPORTAJEA** GABONAK ARGAZKITAN · **GEHIGARRIA** TXIKIBARREN · **KULTURA** SAN ANTON JAIAK
**KIROLA** SAN ANTON PILOTA TXAPELKETA

# BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2003ko urtarrilaren 10a / XI. urtea / 427. zkia



JUAN MUGERZA NAZIOARTEKO 60. KROSA URTARRILAREN 12an MINTXETAN

## Hankarik bizkorrenak Mugerza Krosean


BASKO RE
1. GARBIKETA • MANTENIMENDUA
AUTOEN ALOKAIRUA
Sigmako industrialdea - 7. eta 8. pabiloiak
Tel.: 902 103 287
KONPONKETA TAILERRA
MANTENDU EZAZU
ZURE AUTOA
GARBI ETA PREST!
GARBIKETA
2,50 €
GARBIKETA
AUTOMATIKO PUBLIKOA
MANTENIMENDU OROKORRA • OUO, BALAZTA
Eta PNEUMATIKOEN AIDAKETA
BARRUKO GARBIKETA INTEGRAIA
GARBIKETA
BEREZIA
4,50 €
GARBIKETA
LEHORKETA
ARGIZARIA EMATEA
3,50 €
SIGMAKO
INDUSTRIALDEAN
GAUDE


ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA
San Frantzisko, 43 -1. solairua
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR
orduteai berria
1 0:00etatik-1 2:30era
1 5:00etatik-20:30era
Ego Gain, 4 behea
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 455 • 20600 EIBAR

# 40 URTE 40 ISTORIO

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

## 40 urte, 40 istorio

Bai, hurrengo 40 asteetan ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarteari lotutako 40 istorio kontatuko dizkizuegu. Martxoan 40 urte beteko ditu Elkarteak, eta 40 urteko historiak istorio asko kontatzeko ematen du.

1963ko martxoan piztu zen Elgoibarko Izarra. Garai hartan euskarak Elgoibarren eta Euskal Herrian bizi zuen egoera ilunari argi pixka bat emateko nahiarekin, Felix Etxeberriak, Sabin Osorok eta Jesus Larrañagak Elgoibarko Izarra sortzea erabaki zuten. Ordutik, hor egon da izarra euskarari eta Elgoibarko euskaldunoi argia ematen. Beti ez du indar bera izan, baina berrogei urteotan piztuta mantentzea lortu du, eta ez da gutxi.

Elgoibarko Ikastola, gau-eskolak, euskal dantzak, euskal jaiak, txistu eskola, bertso eskola, ingeleseko eta baleteko eskolak, Aubixa aterpetxea, San Antonetako Odeoiko jaialdia, berbenak, mendi irteerak, Euskara Batzordea, Txitxilibakio aldizkaria, ... Elgoibarko Izarraren bidean laga dituen hautsak dira. Batzuek, oraindik ere eta zorionez, bizirik diraute. Beste batzuk, berriz, historiara pasa dira. Elkartearen eta herri honen historiara.

1990ean, berriz, Elgoibarko Izarraren bigarren etapa hasi zen. Helburu eta filosofia berarekin, baina lan egiteko beste modu batekin. Bigarren etapa ezagunagoa da denontzako, hurbilago daukagu: BARREN, Atxutxiamaika, Gurean Bairen bi atalak, Arigera, kultur eskaintza, ...

Beste plan hoberik ez baldin badaukazue, begiak itxi eta 40 urtean atzera egingo dugu. Datorren astean irtengo gara.

*Felix Etxeberria eta Imanol Larrañaga*

# iritzia



## Saltaka eta korrika

Olentzerok hego haizearekinjostatuz urtea agurtu zigun bezala, erregeek hotzaren-hotzez ekarri dute urte berriaren testigua. Udaletxean hiru zorioneko atzerritar hauek Elgoibarko haurrei ongi etorria eman bazieten, beraien desioak goxo-goxo entzunez, bihar Elgoibarko nagusiei tokatzen zaie herriko etxe honetan bertan ongi etorria ematea kanpotar korrikalariei.

Iritsi da krossaren festa! Saltaka eta korrika, Mintxetako zelaiak kolorez jantziko dituzte igandean hainbat eta hainbat kirolarik eta kirolzalek! Baina benetan horrela ote? Antolatzaileen urteroko buruhaustea da hau: igande honetan etorriko al da jendea eguraldiaren hotzetan korrikalarien ahalegina berotzeko?

Urteak dira gure herrian nazioarteko krosa antolatzen dela eta urteak-urte lortu du gure krosak bere kutsu berezia izatea; ospatzen diren krosetatik antzinetakoena izanik, urtero goi mailako aparteko kirolariek zapaltzen dituzte gure lurrak tipi-tapa, tipi-tapa, eta txalo beroak jaso. Aurten ere munduko onenak izango ditugu gure artean, eta ziur naiz oso pozik agurtuko dutela Elgoibar, antolatzaileek eta baita herritarrek ematen dien arreta eta tratu onagatik.

Jakina da horrelako ekitaldiak suposatzen duen diru-biltze lana eta ezinbestekoa Elgoibartarron laguntza, igandean zapatilak jantzi, ogitartekoa prestatu eta Mintxetan goiz parte ederra igaroz. Animo ba eta hotzari aurre eginez, goza dezagun ekitaldi osasuntsu eta ikusgarri honetaz!

Edurne Bilbao


Kexak ...... ..........................................5
motz motz ..........................................8
gehigarria ..........................................13
kiRolAk .. ..........................................20
aGenda .. ..........................................24

2003-1-1 0

### EKITALDI EDERRA

BARRENen 10. urteurrena ospakizun-ekitaldira joateko aukera izan nuen eta ekitaldi xumea, herrikoia eta polita iruditu zitzaidan. Hunkigarria benetan. Ez nintzen bakarra. Bertarfizan ziren gehienak edo denak iritzi berekoak ziren. Irteeran denon ahotan nabari zen irribarrea. Malkoak lehortu gabe irten zirenak ere baziren. Sariak sinbolikoak izan arren, asko eskertu zuten saridunek.

Baina ekitaldi eder hura ez zen berez atera. Eszenatokira atera zirenak lan polita eta txukuna egin zuten eta ikusleen txaloak jaso zituzten ordain. bezala. Hala ere, halakoetan beti gertatzen den bezala, isilean lan egin zuenik ba zen eta, gehienetan bezala, eskerrik jaso barik joango ziren etxera. Berandu bada ere, eskerrik beroenak eman nahi diet parte hartzaile eta laguntzaile denoi eta bereziki isilpeko lan handia egin zuen Imanol Larrañagari. Batzuk badakigu zenbat lan ematen duen halako ekitaldi batek eta zein gutxi gogoratzen garen ezkutuko lanen egileetaz.

ZORIONAK denoi eta BARRENek beste harnar urte betetzen dituenean antzeko ekitaldi batean elkartzekoak izan gaitezen!

BARRENzale bat

### GUILLERMO BALTASAR GARATE

Egunotan, zure alderdikideen, batez ere Juan Joseren, hitz, propaganda eta ekintzetatik, Oinarrizko Eskubideak eta lege espainiarrarekiko errespetua eta bete nahia behin eta berriro jasotzen ditudalako, hurrengo eskaera egitea nahiko nizuke: Oinarrizko Eskubideen urraketa sakona jasaten ari dira 2 elgoibartar, Iñaki Jaio eta Inazio Iriondo. Ilegalki daude gartzelan, beraien zigorra betea baitute espainiar legeen arabera. Ziur nago espainiar lege ez errespetatze honen aurka egongo zarela, horregatik, zure esku dagoen neurrian zerbait gehiago egin dezazun eskatzen dizut. Egia da zerbait egin duzula, baina 2 herritar haueri eta bere sendiari elkartasuna adierazteko ekimenetara zuen ordezkaritza bidaltzea (kasko gorridun gazte batzuk) eskergarria den arren, ni beste konpromiso batzuetaz ari naiz. Udaletik egin daitezkeen ekimenak nik baino hobeto ezagutzen dituzunez, soilik ideia moduan, pentsatu, bahitzailea espainiar estatua eta bahitua euskal preso politiko bat ez balira zer egingo zenukeen (mozioak, manifestazioak...) Besterik gabe, badakit arazo honek benetako kezka sortzen dizula eta zure esku dagoena egingo duzula; espainiar legea betetzea denon eskuetan baitago.

Z.B.
N.A.N. 15.400.717

## Urruzunoren
## begi ezkutua
## Deiak



**Beti berak deitzen zuen.** Telefonoa hartu, zenbakia markatu eta aspaldian ikusi gabe zegoen lagunari deitzen zion. Zer moduz bizi zen jakin nahi zuen, zoriontsua al zen, ze ile orrazkera zeukan, semeari lehen hortza atera ote zitzaion.... Txikikeriak, eguneroko gauzatxoak, bizirik gaudela jakinarazten diguten arrastoak. Geratu behar dugu, ea egia den, ea berandu baino lehen kafetxo bat hartzen dugun elkarrekin.... Badut zu ikusteko gogoa, baita neuk ere. Deituko dizut. Deitu. Bale, nire esku. Baina, hurrengoan ere, beti betikoak hartzen zuen estreinakoz telefonoa. Zenbakia markatu eta lagunari deitzen zion. Zelan bizi zen jakiteko.

Aspertu zen arte. Gehiago sekula ez ziola deituko agindu zuen, nekatu zela beti lehen pausoa emateaz. Energia xurgatzen ziola, eta ez zuela apenas ezer jasotzen bueltan. Eta horrela, telefonoa begiratu ere egin gabe pasa zituen egunak, asteak. Halako batean, lagunaren beharra zeukala sentitu zuen arte. Eta orduan berriz markatu zuen zenbakia. Laguna bizi ote zen jakin nahi zuelako. Bera ere bizirik zegoela kontatu nahi ziolako. Ematea jasotzea bezain inportantea dela esan nahi ziolako.

Jasone Osoro


ASTEKARIA
BaRRen

Nara
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12
Publizitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

Efi ELGOIBARKOIZARIA

**LAGUNTZAILEA** Elgoibarko Udala **KOORDINATZAILES** Ainhoa Andonegii **ZUZENDARIA** Asier Orbea **KAZETARIA** Irati Agirreazaldegi, **PUBLIZITATEA** Amaia Erkizia **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **ADMINISTRAZIOA** Amaia Rodrigez **GERENTZIA** Jon Peli Uriguen **KOLABORATZAILEAK** Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Juan M. Elustondo, Alberto Ansuategi, Edume Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Monlse Arregi, Juanito Gorostiza, Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T. **AZALEKO ESAERA ZAHARRA** Gotzon Garateren liburutik **INPRILIATEGIA** Gedu Koop. E. **TIRADA** 4.100 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

*Elgoibarko 1Jdalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

kutxa zun esker

1DANOBAT 104.11.5 REnneseerkTA
fiNGOITI GRUPO DANOBAT
FATARTA




• Gazte batzuk azaldu zaizkigu, zinema oso garestia dela esanez: "Urte berriarekin prezio guztiak igotzen dira apur bat, baina Herriko Antzokian gorakada nabarmena jasan du aurten prezioak. 75 zentimo garestiago jarri dute zinema, eta pelikula bat ikusteagatik 4 euro ordaintzea gehiegi da. Hiriburuetako prezioetatik oso gertu dago, baina ezin da konparatu ere egin. Hiriburuetan pelikula mordoa egoten dira aukeratzeko, eta estrenoak berehala iristen dira. Elgoibarren, ordea, pelikula berriak ikusteko asko itxaron behar izaten dugu, eta prezio horretan zerbait gehiago eskaini beharko lukete".



• Herritar batek esan digunez, jaiotza dagoen lokal ondoan, Gabonetako argiak puskatu dituzte. "Gazte batzuk harriekin eta pistolatxoekin argiak apurtu dituzte, eta ez dago eskubiderik. Gaur egungo gazteek dena apurtzeko joera daukate".

## 17A10 131

• Herritar batek Brigadako langileak txalotu nahi ditu San Pedroko etxeetatik tunelera bitartean egin duten lanarengatik. "Oso dotore eta txukun laga dute dena. Aupa mutilak, jarraitu horrela".

• Emakume batek BARREN txalotu nahi du, joan zen abenduaren 23an antolatu zuen 10. urteurreneko ekitaldiagatik. "Lan polita egin zenuten benetan, eta jaialdia oso ondo atera zen. Animo eta ea 10 urte barru berriz ere horrelakorik ikusten dugun!".





# GABONAK

## Urtarrilak 5
Jaiotza biziduna.













## Abenduak 24
Euskal Presoen Olentzeroa.




## Abenduak 28
Gabon Zahar feria.





## Abenduak 20
Bertsolari gazteen jaialdia.



## Abenduak 20
Musika Eskolako ikasleen kontzertua parrokian.



## Abenduak 24

ongi-etorria.

GABONAK

GABONAK


















**Urtarrilak 5**

Erregeen Kabalgata.





**Abenduak 28**

Plazara Dantzara erromeria.



ARGAZKIAK

# Ubitarteko babes ofizialeko etxebizitzak 2005erako egingo dituzte

## Urruzunoko etxeak eraikitzen, berriz, laster hasiko direla esan du Madrazok

Javier Madrazo Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako kontseilaria Elgoibarren izan zen abenduaren 23an. Udaletxera egindako bisitan Ubitarte Gainen babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko proiektua onartu eta Udalarekin elkarlanerako akordioa sinatu zuen. Udalak etxebizitzak eraikitzeko lurrak saldu dizkio Eusko Jaurlaritzari eta kontseilariak azaldu zuenez, etxeak 2005erako eraikiko dituzte. Guztira, 100 etxe egingo dituzte, baina zehaztu gabe dago zenbat jarriko dituzten alokairuan eta zenbat salgai. Etxebizitzen zozketa 2004 urteko lehen sei hilabetekoan egingo dute eta etxebizitzen erdia Elgoibarren erroldatutako jendearentzat izango dira. Gainontzekoak herritarren eta bailarakoen artean banatuko dituzte.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak 10 milioi eurotik gorako gastua izango du. Lurrak erosten 1.064.445,45 euro, eta azkenik eraikuntza lanek 8 milioi eurotik gorako kostua izango dute.



*Javier Madrazo Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Kontseilaria, Gillermo Garate alkatearekin eta J.M. Oruesagastirekin akordioa sinatzeko unean.*

**Aparkalekuak**

Etxebizitzak eraikita aparkalekuak kenduko lituzkete, baina Madrazoren hitzetan etxebizitza bakoitzeko 2 garaje egiteko asmoa dute. Bestalde, alkateak esan zuenez, "100 metro eskasera Sigmako aparkalekua dago eta jendeak erabili ez arren, irtenbide egokia da".

Urruzunoko etxeak ere izan ziren bisitako hizketa gaiak. Madrazoren esanetan, enpresarekin arazoak egon zirenez bi hilabetez lanak geldi egon dira, baina beste enpresa batekin ados jarrita laster hasiko dituzte berriz lanak. Bestalde, alokairuko 40 etxeak laster emango dizkiete jabeei.

# Parrokiako jaiotza bisitatzeko azken eguna urtarrilaren 17a izango da

Joan den abenduaren 20an ireki zituzten Elgoibarko Parrokiako jaiotzaren ateak eta urtarrilaren 17ra arte izango da ikusgai. Kultura Saileko Ana Santolayak jarri zituen martxan mekanismoa eta argiak, eta bisitariek jaiotzako irudiak mugimenduan ikusi ahal izan dituzte. Aurtengo berrikuntza Arostegiko iturria da, baina beste zenbait aldaketa ere egin dituzte. Arduradunen esanetan, "ezin daiteke jakin zenbat jende etorri den jaiotza ikustera, baina milaka izan dira". Oraindik bisitatu ez dutenek astegunetan arratsaldeko 15:30etik 20:30era eta larunbat, igande eta jaiegunetan goizez 10:30etik 13:30era eta arratsaldez 17:30etik 20:30era izango dute horretarako aukera.





*Ezkerrean Benantzio apaiza Parrokiako jaiotza bedeinkatzen. Eskuman Sabin Oregi bere faiotzekin*

Elgoibarren jaiotzekiko zaletasuna handia da. Horren adierazle da Sabin Oregi elgoibartarrak egin duen lana. Iaz hasi zen jaiotzetarako estalpeak egiten eta aurten zuhaitzen azal, goroldio eta harritxoekin era eta diseinu ezberdinetako 7 estalpe ikusgarri egin ditu.

## Gestio eskolak kalitatearen Urrezko Q saria eskuratu du



Eusko Jaurlaritzak Euskaliten kalitatearen Urrezko Q sariak banatu zituen joan zen abenduaren 19an. Gasteizko Printzipal Antzokian eman zizkieten sari hauek 16 euskal erakunderi. Elgoibarren dagoen Gestio Eskolak Urrezko Q-a jaso zuen Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren eskutik. Eusko Jaurlaritzak bere gestio praktiketan maila aurreratua erakusten duten enpresen, hezkuntza-zentruen, osasun-zentruen eta beste erakundeen lana hartzen du aintzat errekonozimendu hauek emateko orduan.



## Errota harriak aurkitu dituzte Marañongo etxea botatzean

Orain dela gutxi bota dute Ermuaranbide kalean zegoen Marañongo etxea, etxebizitza berriak eraikitzeko. Eraiste lanetan ari zirela errota harriak aurkitu dituzte. Izan ere, garai batean Errotaberri izenez ere ezaguna zen etxea, errota baitzegoen bertan. San Lorentzo errekako uraren indarrez mugitzen ziren harriak garia eta artoa xehetzeko lehendabizi eta mosketeen alkabuz eta kainoiak zulatzeko gero. Errota 1970. urtera arte egon zen martxan eta orain bere aztarnak gorde ahal izango dira. Garai batean, Elgoibarren 22 errota zeuden. Egun, Apraizko errota bakarrik mantentzen da.

## Mauxitxa, Txillarre eta Olazabal baserriek sariak jaso zituzten Gabon Zahar ferian

Gabon Zahar ferian eguraldiari aurre eginez, herriko baserritarrek hartu zuten protagonismoa. Baserrietatik fruta eta barazkiekin etorritakoek Plaza Handian jarri zituzten produktuak. Saltzera ez ezik lehiaketan parte hartzera ere etorri ziren. Txillarre baserriko Pello Rubiok bigarren saria eta herriko saltokirik onenarena eskuratu zituen. Ferian ohikoa den beste lehiaketa bat gaztena da. Gaztarik onenen artean hirugarrena Mauxitxa baserrikoa zela erabaki zuten epaimahaikoek. Ferian Olazabal baserriak ere eskuratu zuen saria, birlandatutako mendiak ondoen zaindu dituelako.





## Iusana Mujikak aurkezten duen 'Lauretan Babel' saioak Iparragirre saria eskuratu du

Gasteizko Artium museoan abenduaren 17an egindako ekitaldian banatu ziren 2002ko Iparragirre sariak eta, besteak beste, Euskadi Irratian Susana Mujika esatari elgoibartarrak aurkezten duen "Lauretan Babel" irratsaioa izan da saria jaso duen saioetako bat. "Lauretan Babel" Esther Aizpuruak zuzentzen duen arratsaldeko magazina da, bertan elkarrizketak, erreportajeak eta solasaldiak izaten dira, zientzia, kultura, natura eta beste hainbat arloren inguruan. Honakoa, Susana Mujikak jasotzen duen bigarren Iparragin•e saria da. Izan ere, aurrez goi zeko programarengatik saritu zuten.



## Gabonetako zozketak

Urtero bezala aurten ere Txankakua Merkatari Elkarteak Gabonetako zozketa egin du. Guztira 1.800 euro banatuko ditu saritan eta honako hauek dira zenbaki sarituak eta erreserbakoak:

| | |
|---|---|
| 1. 28.550 | 15.001 |
| 2. 83.213 | 06.697 |
| 3. 18.298 | 62.428 |
| 4. 26.711 | 09.866 |

Bestalde, Misqui Elkartasun Taldeak saldutako txartelen zenbaki irabazlea otsailean jakinaraziko dutela esan digute.

# 10 unirr

BARRENek 10 urte bete zituen Gabonetan. 10 urte ez da ezer asko historiari erreparatuz gero, bai ordea, gure herriko historian, eta nola ez, BARRENen historian, bere bizi osoa, alegia. Ostiralero iritsi da herriko etxeetara elgoibartarrei esker. Izan ere, BARREN ez litzateke aterako herritarrengatik ez balitz. Herritarrak izan dira 10 urte hauetan BARRENeko protagonistak. Herritarrei eskerrak emateko Ekitaldi bat egin zen joan den abenduaren 23an, BARRENen urtebetetze jaialdia.




## 10 URTE II PR TA iNI TA




93ko protagonista
C.D. Elgoibar




94ko protagonista
Mauxitxa Txaranga




95ko protagonista
Intsumiso Taldea




96ko protagonista
Elgoibarko Ikastola




97ko protagonista
Edu Arrillaga




Herritarrak banan-banan eskertzea zaila da oso. Beraz, jaialdian 10 protagonista saritu genituen: Elkarteak, taldeak, pertsonak, ikastetxeak. Sariak banatzeko BARRENeko langileak eta kolaboratzaileak taularatu ziren. 10 urtetako 10 protagonistekin batera zoritxarreko beste protagonista batek ere•hartu zuen lekua jaialdian. Galizian izandakd hondamendiaren ondoren, Galiziarekin eta Elgoibarren bizi diren galiziarrekin elkartasuna dierazi nahi izan genuen.




Saria jasotzera igotzean, une hunkigarririk ez zen falta izan ekitaldian: Mauxitxaren doinuak entzun genituen, intsumisoek prestatutako bideoa. Tartean Urruzuno literatur taldekoen lanak entzuteko aukera ere izan genuen. Argazki zaharren bilduma eta Topeka film laburra ere ekitaldiko parte izan ziren.

Amaitzeko Haritz dantzari taldekoek dantzan eskerrak eman zieten bertaratutakoei eta taula gainera igo zirenei: Langile, kolaboratzaile eta sarituei, eta nola ez herritarrei.

Zorionak kantatuz eman zitzaion amaiera ekitaldiari eta BARRENekin batera jaiotako bi umek piztu zituzten kandelak. Eta euskaldunok guztia janez ospatzeko ohitura dugunez, luntx batekin amaitu zen guztia.



10 urte eta gero... besterik ezin genuen espero. Ea horrela elkartzeko moduan izaten garen beste hainbeste betez gero.
















| 98ko protagonista<br>Haritz E.D.T. | 99ko protagonista<br>Danobat kooperatiba | 2000ko protagonista<br>Errotatxo Elkartea | 200Ieko protagonista<br>IMH | 2002ko protagonista<br>Gemma Agirregomezkorta |
|---|---|---|---|---|

URTE BERRIAREKIN PROMESAK EGITEKO OHITURA IZATEN DA HAN ETA HEMEN

# EGIN AL DIOZU PROMESARIK URTE BERRIRAKO ZURE BURUARI?



## MERTXE PLAZAOLA

**32 urte, sukaldaria**

Ez diot nire buruari aparteko promesarik egin, ez daukat horretarako ohiturarik. Nere helburu bakarra hasten ditudan gauzak bukatzea da.

## ROSA MARIA ARREGI

**62 urte, etxekoandrea**

Ez dut sekula horrelako promesarik egiten. Beharra daukanak egin dezala, baina nik joan zen urtean bezala bizitzearekin nahikoa daukat. Promesa horiek gutxitan betetzen dira.





## EMILIANO SOTO

**53 urte, peoia**

Ez. 2003. urtea aurrekoa modukoa izanda konformatzen naiz. Ez daukat aldatu beharrik. Ondo iruditzen zait jendeak promesak egin eta betetzea, baina ni oso gustora nago neure buruarekin.

## JUAN LUIS SARRIUGARTE

**49 urte, elektrizista**

Ez, nik ez dakat holako promesak eitxeko ohitxurarik. Urtiak danak antzerakuak izaten dia. Ahal bada aurrekua hobetzen saiatuko gera, baina jun zan urtekua modukua bada, neretzat nahikua.





## MARI KARMEN MARTINEZ

**44 urte, erizain laguntzailea**

Ez dut promesarik egin, azkenean ez ditudalako betetzen. Erretzeari uztea gustatuko litzaidake, kirol gehiago egitea ere bai, baina momentuz ez nago zeharo konbentzituta.

## JESUS FERNANDEZ

**43 urte, galdagilea**

Promesarik ez dut egin, baina erretzeari uztea gustatuko litzaidake. Ia aurten lortzen dudan. Urtea aurrera joan ahala, saiatuko naiz gaizki egindakoak aldatzen.




**Neguko menu bereziak**
**12 euro**

Oralti Igancle
gauetan ere zobcklYkkl

*Basarte fluzoa, 4*
*Te.ij: - FaX; 943 743 426*
*20870 Eladar*

JATETXEA

URKIDI AHOLKULARITZA

**KONTABILITATE**
**LAN**
**FISKAL**

Kalamua, 12 • ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91

,THE
IIARTFORD
ASEGURUAK

° H

0 1.4

)e

yhr 51 e

LHko eta DBHko ikasleekin egindako 0. gehigarria

1111411111111111••••••••••••••1111$41141111411111••••111111•1111

# Kazetari berriak BARRENen

## 6 kazetari berri izan ditugu aurtengo Gabonetan, BARRENen abenduaren 30ean



Atxutxiamaika aisialdi taldearen deiari erantzunez, 6 gaztetxo izan genituen BARRENeko erredakzioan bisitan joan zen abenduaren 30ean. Astebeteko gure lan jarduna azaldu genien lehenengo: Zein gai landuko dugun erabakitzetik inprentara iritsi arterako pausoak ahalik eta zehatzen kontatuz. Ondoren, 6 gaztetxoak jardun ziren kazetari lanetan. Denen artean zein atal landuko genituen erabakita, bi taldetan banatu eta bakoitza bere lanean aritu zen. Boligrafoa, papera eta argazki kamera hartuta kalean galdezka aritu ziren batzuk. Haur lotsati batzuen ezezkorik ere jaso zuten, baina azkenean bi gazte ausartek erantzun zieten kazetarien galderei. Gero, argazkirako guapo-guapo jarri eta gure kazetariek erretratu bana atera zieten. Besteek, BARRENeko erredakzioan egin zuten lan. Informazioa bildu zuten lehendabizi. Horretarako, bakoitzak bere eskolako berri eman zuen edo informazio hori emango zietenen bila aritu ostean, albisteak idatzi zituzten. Kaletik bueltan etorrita batzuk eta BARRENeko erredakzioa utzita besteak, Kultur Etxean elkartu ziren. Ondoren, elkarri egiteko galderak prestatu eta batzuk besteei galderak eginez kazetari moduan ongi moldatzen direla erakutsi zuten. Argazkilari moduan ere badute abilidaderik. Izan ere, oinarrizko aholkuak eman eta batzuk besteei atera zizkieten erretratuak.

Argazkian Anai De la Cruz eta Nerea Sanz begiraleekin agertzen diren Maria Hernandez, Andrea Conde, Janire Elizondo, Oihane Blanco, Aritz Borga eta Josu Atxa izan dira gure kolaboratzaile finak. Beraiek egindako albiste eta galderekin osatu dugu hilabete honetako TxikiBARREN berezia. Hemendik aurrera, txikienek berriz ere izango dute tartea BARRENeko orrialdeetan.

# Elgoibarko ikastetxeetan postal lehiaketa egin dute

## Abenduaren 20an postalik politenen egileak saritu zituzten

oan zen abenduaren 20an, Elgoibarko ikastetxeetan Gabonetako postal lehiaketen sari banaketa egin zuten.

Pilar ikastetxean ikasle guztiek hartu zuten parte lehiaketan. Postaletarako marrazkiak zuri-beltzean egin zituzten A-4 tamainuan. Ikasle bakoitzak bizitza eta bakeari buruzko marrazki bat egin zuen, "Mundua hobetu nahi dugu" lemapean. Marrazki oso politak egin zituzten eta irabazleak Maria Badiola eta Julen Conde izan ziren.

Herri Eskolan, ikasle bakoitzak Gabonei buruzko marrazki bat egin zuen erditik tolestutako kartulina batean. Koloretako marrazki bat egin, eta barnekaldean Gabonekin lotutako esaldi bana idatzi zuten. Ikasleek egindako lan guztiak ikastetxeko pasiloetan jarri dituzte ikusgai.

Ikastolan lehiaketa gela bakoitzean egin zuten eta irabazle bana atera zen. LH 4. mailako irabazleak Garazi Ansola eta Mikel Arrieta izan ziren. Bakoitzak




Aurten Gabonak zoriontzeko herriko ikastetxeetatik jaso ditugu postalak.

30 margotako kaxa jaso zuen. Datorren urtean, irabazleetako baten postala bidaliko dute Gabonak zoriontzeko.

Honela, ekimen honekin, herriko ikastetxeetan Gabonak postal bidez zoriontzeko ohitura berreskuratu nahi izan dute.

# Atxutxiamaikaren Gabonetako ekintzetan 94 umek hartu dute parte



Gabonetako oporretarako Atxutxiamaika aisialdi taldeak hainbat ekintza antolatu ditu. Guztira 94 lagunek hartu dute parte negulekuetan, irteeretan eta tailerretan.

Neguleku irekietan 2 eta 8 urte arteko 26 ume egon dira. Abenduaren 23tik urtarrilaren 3ra bitartean, jai egunak salbu, Herri Eskolan elkartu eta egunean 3 orduz, abestu, eskulanak egin, jolastu... egin zuten eta abenduaren 26an Eibarko Txikiguay parkera ere joan ziren. Nagusiagoek Bilboko PINera egin zuten irteera, abenduaren 27an, 9-12 urte arteko 25 ume eta abenduaren 30ean 9-12 urte arteko 34 ume. Beste ekintzetako bat kazetaritza tailerra izan zen eta 6 umek kazetari lanetan jardun zuten abenduaren 30ean goizez. Bestalde, San Anton Egunean irten eta asteburu osoa Muxikako aterpetxean pasatuko dute gaztetxoek.

# Txiki inkeslu

## Zein iritzi daukazu Prestigeri buruz?

### urte



Fuel gehiago ez ateratzeko grietak tapatu beharko lituzketela uste dut.

### 9 urte



Rebisiñua pasau ez badau ilegala dala pentsatzen dot, baina oin irtenbide bakarra portu batera eruatia da.

### Aritz Borg 10 urte



Kaltea eginda dagoen arren barrera edo sare handi batzuk ipini beharko dira Prestigek botatako fuela ez pasatzeko.

## Zein iritzi daukazu larunbatetako anobidari buruz?

### iTirea Conde 11 urti



Jende asko etortzen da eta ez zait gustatzen. Zapatuetan taberna gutxiago zabaldu beharko lituzkete.

### 1WarIa ilernandez 10 urte



Ez dut gustuko eta hori ez gertatzeko tabernak itxi edo zabalik daudenetan ez lukete alkoholik saldu behar.

### lanire Elizondo 10 urte



Larunbatetan zapatak pegatzen zaizkigu lurrean eta hori ez gertatzeko ez lituzkete basoak bota behar.

# Ga d ak ebalde

1. Zein opari jaso duzu Gabonetan?
2. Joango al zinateke Galiziara txapapotea kentzera?
3. Zuretzat zein da futbolaririk onena?
4. Zer gustatuko litzaizuke izatea handitzean?
5. Telebistako zein programatara joango zinateke?
6. Zein abeslari duzu gustukoen?
7. Ba al dakizu janariren bat prestatzen?
8. Zein pertsona famaturen autografoa eduki nahi zenuk



**ANE GALA**
**11 urte**

**1** Riñonera bat.
2 Ez, ez daukadalako hara joateko gogorik
**3** Rivaldo.
**4** Elgoibar taldeko futbolaria.
**5** Date el bote lehiaketara.
**6** OperaciOn Triunfoko Natalia.
**1** Arraultza frijituak.
**8** David Bustamante abeslariarena.



**UNAI DIEZ**
**urte**

Motor telegidatua 1
Ez, zikin-zikina bueltatuko nintzatekeelako 2
Beckam, Manchesterreko jokalaria **3**
Realeko futbolaria **4**
Shin-Chanen programara. Ni bezala bihurria delako gustuko dut **5**
David Bisbal. Gehien Corazon latino abestia gustatzen zait **6**
Spaghettiak gaztarekin
Arantzabal eta Rekarterena badaukat, beraz, Nihat Realeko **8** futbolariarena.

# Denborapasak

## Zer idatzi dugu hemen?




## Erle guzti hauen artean bi bakarrik dira berdinak. Zein dira?



1DuuDieci repa g D4e z cup *apurld ota opioz!o* L 1)11/NrIZINVIII3

# infor Tiazioa

## Farmazia - okindegia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 11 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 12 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 13 | Ibañez | Ibañez |
| 14 | Bidasolo | Bidasolo |
| 15 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 16 | Yudego | Yudego |
| 17 | Fernandez | Fernandez |

**FARMAZIAK**

IBAÑEZ, Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

*eguerdiko 2ak arte

**OKINDEGIA**

12 igandea Ibarrenea

## INTERESEKO TELEFONOAK

| | |
|---|---|
| **OSASUNA** | |
| Lart iald iak | 112 |
| Anbulatorioa | 03 26 10 |
| Planning-a | 943 74 29 50 |
| Alkoholiko Anonimoak | 943 74 03 85 |
| D.Y.A (anbulantzia) | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 74 38 64 |
| Mendaroko Ospitalea | 943 03 28 00 |
| **Odol** Emaileak | 943 74 39 36 |
| **GARRAIOAK** | |
| Eusko Trenbideak | 902 54 32 10 |
| PESA (Eibar) | 902 10 12 10 |
| Taxi geltokia | 943 74 08 98 |
| **UDALA** | |
| Udaletxea | 943 74 10 50 |
| Euskara Zerbitzua | 943 74 43 66 |
| Ongizate zerbitzua | 943 74 10 08 |
| Kultura Zerbitzua | 943 74 21 58 |
| Gig | 943 74 14 61 |
| Udaltzaingoa | 943 74 13 94 |
| Udal Kirol Patronatua | 943 74 44 15 |
| Mendaroko Udala | 943 75 61 00 |
| **KOMUNIKABIDEAK** | |
| **BARREN** | 943 74 41 12 |
| El Diario Vasco | 943 74 40 73 |
| El Correo Español | 943 74 10 82 |
| Zazpiki irratia | 943 74 34 74 |
| Egunkaria | 943 30 02 22 |
| Gara | 943 31 69 99 |


52E1174
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89


Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3 tr 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

iibiONDO boiRALM's
KIROL ETA MENDIKO ERROPAN MARKARIK ONENAK
San Frantzisko 37
BEHERAPENAK
San Frantzisko, 5 ( erakustokian)
ERDI PREZIOAN
Tel.: 943 74 09 56 Faxa: 943 74 45 37

# ABENDUA

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz **barren@topagunea.com** helbide elektronikora.

## JAIOTAKOAK



**Gorka Alvarez Zambrano**
Abenduak 6
Antxon eta Sonia



**Markel Yudego Gabiola**
Abenduak 14
Iñigo eta Marina

**Naroa Gonzalez Siota**
Abenduak 6
Julian eta Isabel



**Maria Galdos San Martin**
Abenduak 16
Juanjo eta Lorea



**Nagore Mugerza Arizmendiarrieta**
Abenduak 12
Igor eta Elena



**Danel Soutullo Gonzalez**
Abenduak 22
Jose Luis eta Sara

**Jesus Cuende Oiarzabal,**
75 urte, abenduak 1

**Juan Landa Ajubita,**
76 urte, abenduak 13

**Pedro Etxaniz Aizpurua,**
70 urte, abenduak 22

**Txomin Ulazia NIallea,**
78 urte, abenduak 24

**Juan Ulazia,**
91 urte, abenduak 25

**Agustin Urresti San Martin,**
76 urte, abenduak 25

**Petra Leiaristi Larrañaga,**
85 urte, abenduak 28

## EZKONTZAK

**Aritz Santin Artetxe** eta **Maria Marcela Lozano Perez**
Abenduak 12

**Manuel Amaro Lorenzo** eta **Josefa Martin Leiva**
Abenduak 28


# ETXEBERRIA

## Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

***KUTXAK • TRASLADOAK .KOROAK***



**NORBANAKOEI eta KONPAINIEI zuzenduriko zerb itzuak.**

**Donostia eta probintziako erietxe zentroetan ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01

## "El club de la comedia" izango da San Antonetako ekitaldirik garrantzitsuena

### Egitarau zabala prestatu du Udalak datorren urtarrilaren 17 eta 18rako

Belen Rubio, Sergio Olalla eta Eduardo Aldan aktoreak izango dira "El club de la comedia" saioko protagonistak. Mikrofonoa eta aulkia nahikoa izango dute jendearen barrea eragiteko. Aktore bakoitzak, umorezko bakarrizketa bat prestatuko du. Eguneroko bizitzan ohikoak izaten diren kontuak modu umoretsuan kontatzen dituzten bakarrizketak izango dira. Ikuskizun honek Estatu mailako antzoki garrantzitsuenak bisitatu ditu, eta datorren astean Elgoibarren ikusteko aukera izango dugu. Azken urteotan arrakasta handia izan dute mota honetako ikuskizunek, eta bera izango da San Anton jaietako ekitaldirik garrantzitsuena.



*Belen Rubio, Eduardo Aldan eta Sergio Olalla izango dira aktore protagonistak.*

Urtarrilaren 18an, XXII. Zigilu erakusketa inauguratuko da, Taupada antzerki taldearen 25. urteurrenari eskainita. Umeak izango dira egun honetan protagonista. Goizean goizetik, haurrentzako parkeak egongo dira Foruen Plazan, eta arratsaldean erraldoi eta buruhandien kalejira izango da.

Urtero bezala, San Anton jaietan ez dira Meza eta pilota partiduak faltako. Udalak adin guztietarako egitaraua prestatu du, beraz, herritar guztiek izango dute gozatzeko parada, eta ez da aspertzeko aukerarik izango.

## Josu Iparragirre eta Jose Mari Mugerza izan dira Morkaikok antolatutako 11111. argazki lehiaketako irabazleak

Epaimahaiak "Ayantepui: uraren jaiotza" argazkia saritu du aurtengo edizioan. Josu Iparragirrek Venezuelan atera zuen argazkia, eta guztien artean, bera izan da aukeratua. Josu Iparragirrek, 180 euroko saria jaso du. Ikusleen artean, Jose Mari Mugerzaren "Ekaitza" argazkia izan da gustukoena. Aizkorrin aterata dago erretratua, eta berak jaso ditu boto gehien. Jose Mari Mugerzak 120 euroko saria irabazi du. Botoa eman duten ikusleen artean, liburu baten zozketa egin da, eta Iban Herrero Uriguen izan da irabazlea. VIII. argazki lehiaketa honetan, 12 lagun inguruk hartu dute parte, eta esan digutenez, kalitate handiko argazkiak aurkeztu dira.



*Ikusleen saria: " Ekaitza"*
*Jose Mari Mugerza*



*I. saria*
*" Ayantepui: uraren jaiotza"*
*Josu Iparragirre*



**ESKERTZA**

*2003ko urtarrilaren 2an, 73 urte zituela hil zen*
*LUIS ARTETXE GALDOSen sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



# Kenenisa Bekele munduko kros txapelduna izango da Mugerza Kroseko Izar nagusia domeka honetan

## Yuda tanzaniarra eta Chebii, iazko irabazlea, izango dira etiopiarraren arerioak

Mintxeta Atletismo Taldeak Goi mailako Mugerza Krosa antolatzea lortu du aurten ere. Luxuzko partaidetza izango du lasterketaren 60. edizioak. Kros munduan dauden 3 atletarik onenak ikusteko aukera izango da Mintxetan domeka honetan, urtarrilaren 12an. Izar nagusia Kenenisa Bekele 20 urteko etiopiar gaztea izango da. Egungo munduko kros txapelduna dugu Bekele. Dublinen jokatu zen txapelketako kros motza eta luzea irabazi zituen arerioak eta ikusleak zur eta lur laga ostean. Aurten Bruselako eta Newcastleko krosak irabazi ditu.

**Afrikarren arteko lehia**

John Yuda tanzaniar mehea saiatuko da etiopiarrari aurre egiten. Yuda Bekeleren atzetik sailkatu zen iazko Munduko Kros Txapelketan eta Llodio eta Lasarteko krosak irabazi zituen Euskal Herrian. Aurten, bigarren postuan sailkatu da Llodioko krosean. Dena dela, ezin dezakegu Mugerza memorialeko azken bi ediziotako irabazlea aipatu gabe laga, Abraham Chebii keniarra, hain zuzen ere. Chebiik lasterketaren ibilbidea oso ongi ezagutzen duela izango du bere alde. Hiru Afrikarren arteko lehia izugarria izan daiteke, baina badaude aipatu beharreko zenbait izen ere: Dri'ss Lakaouhja marrokiarra, Helder Ornellas eta Domingos Castro portugaldarrak edo Chema Martinez espainiarra esaterako.

**Emakumezkoen lasterketa**

Emakumezkoen lasterketan ere goi mailako atletak ikusteko aukera izango da. Edit Masai keniarra izango da faborito nagusia, bera baita egungo Munduko Kros txapelduna distantzia laburreko krosean. Aurten Newcastleko krosa irabazi du. Jane Moro eta Prisca Jepleting keniarrak ere kontutan hartzekoak izango dira eta baita Alexandra Aguilar espainiarra ere. Iaz bigarren postuan amaitu zuen Elgoibarren.






*Urtarrilaren 7an egin zuten 60. Mugerza Krosaren prentsaurreko aurkezpena udaletxean. Bertan izan ziren Fermin Arrese eta Jose Gurrutxaga, lasterketa egunean omenaldia jasoko duten elgoibartarrak.*

**Omenaldia**

Antton Azpiazu Mintxeta Atletismo Taldeko ordezkariak prentsaurrekoan esan zuenez, "erronka handia izan da munduko txapeldunak Elgoibarrera ekartzea, batez ere, beste kros batzuk baino aurrekontu txikiagoa daukagula kontutan hartuz. Hiru edo lau atleta on ekartzeak partaidetza zabalagoa lortzeko aukerak murrizten ditu, baina horren aldeko apostua egin dugu". Bestalde, Mintxeta Atletismo Taldeak herriko 3 atleta omenduko ditu lasterketaren egunean urte luzez atletismoaren inguruan eta Mugerza krosa antolatzen egin duten lan itzelaren eskerretan. Fernando Uriarte "Olinpic" zena, Fermin Arrese eta Jose Gurrutxaga izango dira omenduak.

## San Anton eta Hite Euskadi Txapelketetako final aurrekoak jokatuko dira zapatu honetan Ikastolako frontoian



*Navarro eta Muguruza iazko txapelketako irabazleak.*

Elite Euskadi Lau eta Erdiko Txapelketa jokatzen ari dira afizionatu mailako 8 pilotaririk onenetarikoak Elgoibarren, San Anton Txapelketarekin batera. Ahenduaren 28an hasi zen lau eta erdiko txapelketa eta urtarrilaren 3an, berriz, San Anton Pilota Txapelketa. Zapatu honetan, urtarrilaren 11n, goi mailako lau partidu ikusi ahal izango dira Ikastolako frontoian arratsaldcko 17:00etatik aurrera. San Anton Txapelketako gazteen mailan Arrastoa eta Jauregik eta Garciandia eta Zabalak osatutako bikoteek neurtuko dituzte indarrak bigarren final aurrekoan. Ondoren, elite mailako txapelketaren final aurrekoak jokatuko dira. Lehen partiduan Castellanos donostiarra eta Antxia II abadiñoarra arituko dira nor baino nor eta bigarren partiduan Eguskiza zornotzarrak Sorarrain alkizarraren aurka jokatuko du. Azkenik, Aurtenetxe eta Zabalak Mtez. de Irujo eta Iriarteren aurka jokatuko dute San Anton Txapelketako nagusien mailako bigarren final aurrekoa. Finalak urtarrilaren 17an, San Anton Egunean, jokatuko dira 17:00etatik aurrera.

## Oleg Korneev errusiarrak hirugarren urtez jarraian irabazi zuen Elgoibarko Nazioarteko Hake Txapelketa



nleg Korneev errusiarrak Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketari neurria hartua diola frogatu du beste behingoz. Aurtengoa Elgoibarren lortu duen 4. garaipena izan da, jarraian lortzen duen hintgarrena, hain zuzen ere. Dena dela, inoiz baino gehiago kosta zaio txapela janztea, Herminio Herraiz Espainiarra sailkapeneko lehen postuan mantendu baitzen azken jardunaldira arte. Biek puntu berdinekin (6,5) amaitu zuten txapelketa eta bakoitzak lortutako emaitzak aztertu behar izan zituzten epaileek irabazlearen izena jakiteko. Gutxienez. Herraizek Maisu Handi maila eskuratzeko behar zituen puntuak lortu zituen. Hirugarren postuan Elizbar Ubilaba georgiarra sailkatu zen 6 punturekin. Emozioz eta tentsioz beteriko amaiera izan zuen Xake txapelketaren 12. edizioak eta antolatzaileak gustura agertu ziren.

## EMAITZAK

### Futbola

**Haundi 0 —** Aretxabaleta **0 (Pref.)**
Intxurre **3 —** Elgoibar **2 (1. erreg.)**
Zumaiako 0 — Elgoibar **2 (Jub.)**
Orioko 0 — Elgoibar **4 (Kad.)**
Elgoibar 0 — Eibar **0 (Int.)**
Eibartarrak 1— Elgoibar **2 (Neskak)**

### Eskubaloia

Sanlo Elg. 15 — Zarauz **19 (Senior nesk.)**
Pagoaga Elg. **9— Urdaibai 22 (Kad. nesk.)**
Cometel Elg. **25 — Urdaibai 9 (Jub. nesk.)**
Trapaga **27 —** Tecnifuelle Elg. **24 (Sen. mut.)**
Urdaneta **19 —** Pneumax Elg. **22 (Jub. mut.)**
Urdaneta **26 —** Tecnomeca Elg. **25 (Kad. mut.)**
Gatz museoa **28 —** Gaur Elg. **21 (Jub. mut.)**

### Areto Futbola

Kenci Elg. **6—** Xota B **5 (Nazional A)**
**C.D.** makax **5—** Lanbroa 0 **(1. maila)**
**Uni** Eibar-Ermua **3 —** Lojantzi **5 (Jub.)**

### Esku pilota

**Elite Txapelketa**
Castellanos **22 —** Aurtenetxe **5**
Parro **14 —** Antxia II **22**
Eguskiza **22 —** Ogara **16**
Sorarrain **22 —** Altuna **10**

### Idarraga kafeak 6. saria

**HAUNDIko jokalari erregularrena 02/03**

| JOKALARIA | PUNTUAK |
|---|---|
| 1-Elkoro | **20** |
| 2-1. Gurrutxaga | **17** |
| 3-Jakes | **15** |
| 4-Gotzon | **14** |
| 5-Igartua | **12** |
| 6-Navarrete | 11 |
| 7-Caro | 9 |
| 8-Duarte | 6 |
| 9-Izagirre | 6 |
| 10-Leonardo | **5** |
| **11-Arenas** | **5** |

## AGENDA

### Futbola, Mintxetan

**Zapatua, 11**
**13:00** Elgoibar — Billabona (1. **erreg.)**
**16:30** Elgoibar — Aurrera Ondarroa **(1. erreg.)**
**Domekia, 12**
**16:30** Elgoibar — Sporting Herrera **(Kad.)**

### Esku pilota, Ikastolan

**Zapatua, 11**
**San Anton Txapelketa**
**17:00** Arrastoa/Jauregi — Garciandia/Zabala **(Gazteak)**
**19:30** Au rtenetxe/Zabala — Mtnez. I rujo/I riarte **(Nagusiak)**
**4 1/2ko Elite Txapelketa**
**18:00** Castellanos — Antxia II
**18:45** Eguskiza - Sorarrain

### Eskubaloia, Kiroldegian

**Zapatua, 11**
**17:30** Pneumax Elg. — Bidasoa **(Kad. mut.)**
**19:00** Tecnomeca Elg. — Bidasoa **(Jub. mut.)**
**Domekia, 12**
**11:00** Tecnifuelle Elg. — Sestao **(Sen. mut.)**
**12:30** Gaur Elg. — Donibane **(Jub. mut.)**

2003-1-10

## Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Debabarreneko enpresak **fruta dendarako langilea** behar du. **Erref. 94452/2**

Bilboaldeko enpresak **ingeniaria** behar du. **Erref. 91518/5**

Bilboaldeko enpresak **catia V4 teknikaria** behar du. **Erref. 93749/4**

Donostialdeko enpresak **ingeniaria** behar du. **Erref. 93856/2**

Bilboaldeko enpresak **programatzailea** behar du. **Erref. 93953/3**

Elorrioko enpresak **analista programatzailea** behar du. **Erref. 94413/3**

Urolaldeko enpresak **komertziala** behar du. **Erref. 94346/2**

Azkoitialdeko aldi baterako enpresak **montadorea** behar du. **Erref. 94340/3**

Azkoitialdeko aldi baterako enpresak **programatzaile elektronikoa** behar du. **Erref. 94342/3**

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristil 943 74 80 19 edo IMH (Nora RamOn) 943 74 41 32 telefonora.

## Lana

### ESKAERA

♦ Kamarero lanak egingo nituzke. Euskara badakit eta esperientzia daukat. Tr **943 74 17 87/699 18 32 99**

• Mutila etxeko konponketak egiteko prest (arotzeria, elektrizitatea, montajea...) Tr **666 24 16 62/943 03 36 41 (Jokin)**

*Mutilak buzoneo lanak egingo lituzke. **Tr 943 74 44 63 (eguerdietan eta 21:00etatik aurrera)**

Mutilak garbiketa lanak egingo lituzke. tr **943 74 44 63 (eguerdietan eta 21:00etatik aurrera)**

• Emakumea etxeko lanak egin edo bulegoak garbitzeko prest. tr **687 04 32 05 (20:00-22:00)**

• Emakumea etxeko lanak egin edo gaixoak zaintzeko prest. Tr **943 03 03 21**

Neska umeak zaintzeko prest. Arratsaldez. **.cr 659 68 96 32**

### ESKAINTIA

• Basarten lanerako pertsona bat eskatzen da. Baldintza ezin hobeak. zr **943 74 34 26**

• langilea behar da banaketa lanak egin eta almazenerako.Gicla baimena edukitzea ezinbestekoa. tr **608 39 43 05**

• Ikastolako Haurtzaindegian Goi Mailako edo Teknikari Espezialista behar da, euskara ondo dakiena. Interesatuek bidali C.V.a abenduaren 27a baino lehen Ikastolara. Posta Kutxa, 53, 20.870 Elgoibar

♦ Ikastolako Jantokian haurrak zaintzeko perhona behar da, euskara ondo dakiena eta pueri-kultura laguntzaile maila duena. Interesatuek bidali C.V.a abenduaren 27a baino lehen Ikastolara. Posta Kutxa, 53, 20.870 Elgoibar

* Asteburuetarako kamareroa eta basoak biltzeko norbait behar da Oraiko tabernarako. **it 943 74 42 65/943 74 01 93**

• Taberna garbitzeko pertsona behar da. **943 74 26 21**

## Etxebizitzak

• Bigarren eskuko etxea erosiko nuke Elgoibar, Mendaro edo Altzolan. ▪ **636 42 71 77**

Pisua salgai Santa Claran. 2 logela, egongela, igogailua, eguzkitsua. z. **659 14 12 32**

Txiletar neska ingeniariak gela bat hartuko luke alokairuan. **943 74 44 00 (Carola)**

• Etxea salgai. Bizitzera sartzeko moduan. Igogailua, ganbara. Kanpoaldera begira. **12 678 80 35 35/639 180 184**

• Pertsona bat behar da Gasteizen etxea osatzeko. Norbanako logelak eta berogailu zentrala. tr **637 99 01 59**

• Pisua hartuko nuke alokairuan. 13. **943 60 45 98/630 61 79 82**

♦ Logela bat daukat alokatzeko. u° **699 91 31 69**

## Lokalak

♦ Gazte koadrila batek lokala hartuko luke eskiatzeko tresnak eta bizikletak gordetzeko. tr **652 73 53 19 (gauez deitu)**

## Bestelakoak

• Betaurrekoak galdu ditut. Norbaitek aurkitu baditu, deitu mesedez. tr **943 74 28 95/943 74 30 22**

+ Abenduaren 23an kartera galdu nuen, eta hurrengo ostiralean norbaitek Udaltzaingora eraman zuen. Kartera entregatu zuena nor zen jakitzea gustatuko li tzaidake, eskerrak emateko. **.cr 943 74 25 30**

*Urrezko kate bat galdu dut. Libra esterlina bat dauka zintzilik. s- **943 74 15 14 (Isabel Aizpitarte)**

*Sofa eta salarako mahaia hartuko genituzke. Gu joango gara bila. Er **629 88 94 77**

♦ Joan zen ostiral gauean, hilak 13, auto bati ispilu erretrobisorea apurtu nion istripuz, Urasandin. Autoaren jabeak deitu dezala, mesedez. tr **943 74 28 99**

* Altzariak hartuko genituzke lokal bat hornitzeko. -cr **616 62 18 71**

• Eguzkitako betaurrekoak aurkitu genituen anbulategi parean. Galdu diluena joan dadila Udaltzaingora.

**OHARRA:**

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazkena eguerdiko 13:30a da.

## Salerosketak

Urkotronik markako goxoki makina salgai. Urte eta erdi. Tenperatura bikoitza. Merkea. **Tr 655 71 29 59**

• Bikientzako kotxe-kapota salgai. **7: 943 74 44 08**

♦ Lada Niva autoa salgai. ar **647 55 85 17**

• Opel Corsa luzea salgai. SS-X. Merke. a **680 11 29 38**

• R-11 diesel salgai. BI-AN. Tr **943 76 07 26 (8-12/15-19) edo 606 85 07 85**

• Diseinurako mahaia daukat. Norbaitek behar badu deitu. **Tr 943 74 23 07**

Kotxea salgai. Merke. zr **616 50 51 11 (15:00etatik aurrera)**

♦ 5 besotako yantak salgai. Audi A3 originalak, aluminiozkoak, Neumaticos Michelin Pilot. 205-16-55 tr **636 68 67 37/ 943 74 39 59**

• Ford Sierra diesel, SS-AG salgai. Merke, extrekin. **606 85 07 85 edo 943 76 07 26 (8-12/15-19)**

*Seat Toledo salgai. Merke, egoera onean. Tr **656 78 98 82**

• Ford Sierra XR 4X4 salgai. SS-9687-AM. Egoera onean. a **615 74 62 46**

*Seat Ibiza Sport salgai. 1,6, 100cv. 10 hilabete. **620 28 21 23**

♦ Bi garbigailu eta hozkailua salgai. Egoera onean. tr **943 74 27 79**

• Telefono mugikorra salgai. Nokia 5510. MP3, irratia, aurikularrak eta internetetik musika jaisteko kableekin. 300 euro..a. **629 43 47 97**

*Tresillo bat salgai. Egoera onean eta merke.m. **660 22 40 35 edo 943 03 36 97**

## Garajeak

♦ Garajea alokatzen da Pista Beltzean. Tr **943 74 29 38**

• lokala edo garajea behar dugu, koadrila batentzako. Eguraldi txarra egiten duenerako, lanak egiteko... Tr **686 33 16 85**

• Garaje marraduna salgai. Pedro Muguruza etorbidea, 11. Te **943 74 28 24**

• 32 metroko garaje itxia alokatzen da Arregitorren. **943 74 17 02 (J. Roque)**

## Agurrak

• Zorionak **Joanes,** benetan txalogarrixa da eta, Gabon guztixak Senegaleko basamortuan pasau izana. Aupa hi!

*Zorionak **Andrea,** preziosa. Zure laguntxo Garazi eta Maialenen partez.



♦ Zorionak **Aitor,** abenduaren 30ean 2 urte bete zenituelako. Mila muxu etxekoen partez.



e Zorionak **Jessica Barberori,** urtarrilaren lean **18** urte bete zituelako. Aita eta amaren partez.



• Aupa gure **artista!** Zorionak abenduaren 30ean 8 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak **Anderri,** etxekoen partez.



• Zorionak **Julene,** aben duaren 28an 6 urte bete zenituelako. Olaiaren eta familiakoen partez.



• Zorionak **Nerea Fernandez Armendiari,** urtarrilaren 5ean 2 urte bete zituelako. Familiakoen partez.



* **Zorionak Amaiari** abenduaren 12an 7 urte bete zituelako. Familiakoen partez.



sZorionak **Gorane,** bihar hilak 11, 11 urte beteko dituzulako. Familiakoen partez.



• Zorionak **Miriam Osorori,** hilaren 3an 9 urte bete zituelako. Guraso eta ahizpa Oihaneren partez.



♦ Zorionak **Inmakulada Osorori,** hilaren 4an 3 urte bete zituelako. Familiakoen partez, muxu handi bat.



♦ Zorionak **Iskanderri,** abenduaren 16an 7 urte bete zituelako. Familiakoen eta bereziki bere arrebaren partez.



♦ Zorionak **Aitor Niebla Morenori,** urtarrilaren 4an urtebete egin zuelako. Familiakoen partez muxu potolo bat.



• **Elena, 8.** urtebetetze eguna gogoan izan dezazun, urtarrilaren 13an muxu handi bat maitasunez, etxekoen eta bereziki, Miriam txikiaren partez.



• Zorionak **Ibairi,** hilaren **14an 6** urte beteko dituelako. Muxu handi bat familiakoen eta bereziki Markelen partez.



*Zorionak **Ruben,** hilaren 8an 12 urte bete zenituelako. Denon partez, eta bereziki, Olaiaren, eta aitxitxa eta amamaren partez.



♦ Zorionak **Itxaso Rodriguezi,** abenduaren 15ean 7 urte bete zituelako. Guraso, ahizpa, aitxitxa eta osaben partez.



♦ Zorionak **Lidia,** abenduaren 30ean 3 urte bete zenituelako. Gurasoen, aitonamonen, osaba-izeben eta ahizparen partez.



♦ Zorionak **Andrea Jimenezi,** hilaren 5ean 5 urte bete zituelako. Gurasoen eta anaien partez.

# SAN ANTON J AIAK

**URTARRILAK 17, OSTIRALA**

**SAN ANTON EGUNA**

11:00 Meza Nagusia San Bartolome Parrokiako Abesbatzak abestuta. Ertzantzaren Bandaren kontzertua, Herriko Antzokian.

17:00 San Anton Pilota Txapelketako azken partidua Ikastolan.

22:15 "El Club de la comedia", Herriko Antzokian.

**URTARRILAK 18, LARUNBATA**

XXII. Zigilu erakusketaren inaugurazioa Taupada Antzerki Taldearen 25. Urteurrenari eskainia.

11:00-14:00 eta 16:30-20:00

Umeentzako Parkea Foruen Plazan.

Erraldoi eta Buruhaundien kalejira Herriko Dultzaineroekin.

tako Mezaren ondoren, Eibarko Sostoa Abesbatza San Bartolome Parrokian.

## 11 ZAPATUA

19:30 MUGERZA KROSEKO KORRIKALARIEI ONGI-ETORRIA

Udaletxeko Pleno aretoan

HN SAN ANTON PILOTA TXAPELKETAREN FINALERDIAK

Ondoren, Euskadiko Elite Mailako Lau Eta Erdiko Txapelketaren Finalerdiak

Antolatzaileak: Lagunak Taldea eta Elgoibarko Udala



## 12 DOMEKIA

10:00 60. MUGERZA KROSA

Mintxetan

Antolatzailea: Mintxeta Atletismo Taldea



EMAKUMEZKO SENIORREN MUGERZA KROSAREN IRTEERA

12:30 GIZONEZKO • SENIORREN MUGERZA KROSAREN IRTEERA

---

**EL IBARK A Kultur E artean**

## AISIALDIRAKO ZUZENDARIA BEHAR DA

**ESKATZEN DA:**
- Aisialdirako zuzendari titulua
- Antolakuntzarako eta gestiorako gaitasuna
- Harremanetarako dohainak
- Euskara maila ona (ahoz eta idatziz)

**BALORATUKO DA:**
- Esperientzia sektorean
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea
  Elgoibartarra edo ingurukoa izatea

**ESKAINTZEN DA:**
6 orduko lan kontratua urtebeterako. Luzatzeko aukerarekin

**Curriculumak entregatzeko:**
**ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea, Ubitarte 4, behea 20870 ELGOIBAR**
**Informazio gehiago: 943 74 16 26 (Imanol)**
**E-posta: elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com**

**Izena emateko azken eguna: urtarrilak 20, astelehena.**

€1>>

ftittriaYezte..at derfej~9tT

*Urtardlaren 6an, ez zen telebistaren irabazlerik atera, beraz, larunbatean hilak 11 ko Loteria Nazionaleko zenbaki saritua izango da irabazlea.*

## IKASTAROAK

**Langileentzako ikastaroak IMHn**

Makina Erremintaren Institutuak jakinarazten du langileentzako 2003ko lehenengo 6 hilabeteetako ikastaroak datorren urtarrillaren 13tik aurrera martxan egongo direla: Diseinua, Mantenimendua eta Muntaia, Fabrikazioa, Metrologia, Segurtasuna eta Higienea, Kalitatea, Marketina eta Informatika arloetan..Aurten, errelebotan lan egiten dutenentzako ikastaro bat programatu da, orduak horretarako moldatuz. Bestalde, posgradu pare bat ere antolatu dira, bata Lan Arriskuen Prebentziorako eta bestea Mekanizariorako. Interesatuak IMHn galde dezakete 943748266 telefonoan.

**Memoria ikastaroak**

Jubilatuen Biltokiak memoria hobetzen laguntzeko ikastaroak antolatu ditu. Urtarrilaren 6an hasi ziren klaseak eta ostegunero izango dira saioak 15:30etatik 16:30etara. Informazio gehiago nahi izanez gero edo izena emateko Jubilatuen Biltokira zuzendu. Telefonoa: 943 74 05 26.

**Internet ikastaroak**

Urtarrilean zehar ere Internet ikastaro berriak ematen jarraituko du Kzguneak. Batetik, hiru "Internet Kzgunea" ikastaro eskeiniko dituzte ordutegi desberdinetan: goizez 11:00etatik 13:00etara, beste bat 16:00etatik 18:00etara eta azkenik arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Ikastaro hauen iraupena 11 egunetakoa izango da zerotik hasi nahi dutenentzat, eta 8 egunetakoa oinarrizko ezagutzak dituztenentzat. Ikastaro honetan, posta eta nabigazioa praktikatzen dira, baina Outlook Express-aren konfigurazioa eta bideokonferentziak egiten ere ikasten da. Bestalde, 50 urtetik gorakoentzat ere bi ikastaro daude, hauek baidira ordenagailu aurrean arazo gehien dituztenak. Ordutegiak honakoak dira: 9:00etatik 11:00etara goizez, eta 18:00etatik 20:00etara arratsaldez. Bertara etortzen diren ikasleek interneten nabigatzen, informazioa bilatzen, txateatzen eta posta erabiltzen ikasiko dute, besteak beste.

## BATZARRAK

**La Union Elkartearen batzarra**

La Union Ehiza eta Arrantza Elkarteak urtarrilaren 15ean, eguaztenean, ospatuko du urteko batzar orokorra. Lehen deialdia 20:30ean izango da eta bigarrena, berriz, 21:00etan. Elkarteko bazkide guztientzako deialdia da honakoa.

## UDALEKUAK

**Udaleku itxia Muxikan**

Atxutxiamaika Aisialdi taldeak Udaleku itxiak antolatu ditu Muxikan. Lehen Hezkuntzako 4., 5., eta 6. mailako haurrentzat (9-12 urte) zuzenduta daude eta urtarrilaren 17, 18 eta 19an joango lirateke Bizkaia aldera. Izena emateko azkenengo eguna urtarrilaren 10ean izango da. Informazio gehiago Elgoibarko Izarra elkartean, 943 74 16 26 telefonoan edo atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.com helbidean.

## Hilzaldiak

**Zoriontasunamn pedagogia**

"Zoriontasunaren pedagogia" izenburupean hitzaldia eskainiko du Enrike Larrañaga elgoibartarrak urtarrilaren 22an, eguaztenean, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Besteak beste, zoriontasuna lortzeko psikologiaz eta filosofiaz nola balia gintezken azaltzen saiatuko da Enrike Larrañaga. Saioa arratsaldeko 20:00etan hasiko da.

# Mighl zine

**KARTELDEGIA**

**ELGO1BAR, Herriko Antzokian**

**"007 muere otro dia"**
10, barixakua: 22:15
11, zapatua:19:30-22:15
12, domekia: 19:30-22:15
13, astelehena: 22:15

**"Olentzero Gabonetako ipuina"**
12, domekia: 16:30

**"Al limite de la verdad"**
10, barixakua: 19:30-22:15
11, zapatua: 17:00-19:30-22:30
12, domekia: 17:00-19:30-22:30
13, astelehena: 19:30-22:15
14, martitzena: 19:30-22:15
15, eguaztena: 19:30-22:15

**"8 mujeres"**
10, barixakua: 19:30-22:15
11, zapatua: 17:00-19:30-22:15
12, domekia: 17:00-19:30-22:15
13, astelehena: 19:30-22:15
14, martitzena: 19:30
eguaztena: 19:3

**imite de la verdad"**
**10,** barixakua: 22:30
11, zapatua: 19:30-22:15
12, domekia:19:30-22:15
13, astelehena: 19:30
14, martitzena: 19:30

**"Santa Claus II"**
**11,** zapatua: 17:00
12, domekia: 17:00

**"11.09.01"**
16, Eguena: 20:00 (Z.K.)

## ZINEA



## "007 Muere otro dia"

**Zuzendaria: Lee tamahoti.**

**Antzezleak: Pierce Brosnan, Michael Madsen, Halle Berry.**

Ipar eta hego Korea banatzen diren mugan hasiko du misio berria James Bond superagenteak. Era ikusgarrian hasi ere itsasuntzi jezarpen arriskutsuarekin. Ondoren Hong Kongetik Kubara joango da eta handik Londresera. Ipar Koreako militar baten seme gaiztoa izango da Bonden arerio berria. Honek bi Koreatako ejerzitoak batu eta ondoren Japonia erasotzea du buruan, Estatu Batuak izanik bere azken helburua.

# erretratu zaharra

2003-1-10



Aste honetako erretratu zaharra, korrikarako zaletasun handia daukan elgoibartar batek laga digu. Datorren igandean, Mugerza krosaren LX. edizioa ospatuko denez, egokia iruditu zaigu argazki hau argitaratzea. Elgoibartarrek betidanik izan dute korrikarako zaletasuna, eta gaurkoan, lehenagoko garaiak ekarriko ditugu gogora. Argazkia 1963. urteko urtarrilaren 19an ateratakoa da, Mugerza Krosean hain zuzen ere. Egun hartan, Mamo Wolde etiopiarra izan zen irabazlea, eta Marian sailkatu zen bigarren. Lagun talde hau, Lerungo zelai zaharrean ageri zaigu. Ikus dezagun zeintzuk diren erretratuan agertzen direnak.

Ezkerretik eskumara: Jesus Lizarralde "Agarre" (t), Jose Gurrutxaga, Sr. Niskanen (t) (korrikalari etiopiarren entrenatzailea), Marian (korrikalari etiopiarra), Jose Luis Ribate (t), Mamo Wolde (t) eta Fermin Arrese.



**ESKERTZA**

*2002ko abenduaren 25ean, 85 urte zituela hil zen*
*ANTONIA GARATE ARRIOLAren sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





**ESKERTZA**

*2002ko abenduaren 31n, 69 urte zituela hil zen*
*EDUARDO IRUSTA URBIETAren sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



# INFORMATIKA ZERBITZUAK

Ernesto Rodriguez Astigarraga

Ekipo informatikoen salmenta eta konponketa

Neurrira egindako programak

Ikastaroak

Sareen instalazioa

e-maila: erau@euskalnet.net

Erretxindi kalea, 1 Tel.: 651 700 752 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

*ARAMBURU*

# ARANBURU BITXIDENDAKO

## GABONETAKO ZOZKETAKO ZENBAKI SARITUAK:

1. SARIA
GIZONEZKOENTZAT
URREZKO ERLOJUA

**Seriea: B**
**Zenb.: 214**

Ordezkoa: A seriea 4250 zenb.



2. SARIA
EMAKUMEZKOENTZAT
URREZKO ERLOJUA

**Seriea: A**
**Zenb.: 4385**

Ordezkoa: A seriea 96 zenb.

San Frantzisko, 26 Tel./faxa: 943 74 25 35

# GREMIOEN GIDA

## AROZTEGIAK

**ARANZADI**
Olaso 55 - CH
u 943 74 34 78
u 670 42 76 63

**BIENA**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
943 74 31 16

**GARCIA**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
u 943 74 32 38

**LODOSO**
Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
u 943 74 34 90

**LURRA**
Santa Klara, 28 Behea
u 943 74 40 50

**SORALUZE**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
'zr 943 74 36 34

**ULAZIA**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
¹T 943 74 05 47

**ZABALA**
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
u 943 74 03 96

## ERREFORMAK eta PROIEKTUAK

**ETXEKIT**
Antonio Arrillaga, z/g
zr 943 74 43 47

## ITURGINTZA

**ANGEL**
Santa Ana, 5
u 943 74 17 61
171 689 04 92 06

**ONGI**
Olaso Poligonoa, 15-68 pablida
s' 943 74 28 80

**PAGOAGA**
San Antolin, 13
12 943 74 02 79

**TELLABIDE**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
"zr 943 75 50 62
u 607 75 50 62

**ZALDUA**
Urasandi, 26
17 943 74 05 30

**ZUBIZARRETA**
Ubitarte, 5
u 943 74 07 89
u 608 14 30 40

## PINTURAK

**BIOK DEKORAZIOA**
Santa Klara, 11 behea
-11 943 74 15 52
u 606 43 11 19-20

**IPINTZA**
Foruen enparantza, 4
u 943 74 04 40
u 607 74 04 40

## PROIEKTUGILEAK

**JESUS Mg GABILONDO**
Ubitarte, 4-5 esk.
tr 670 41 20 73

## ELEKTRIZITATEA

**ARAMAR**
Morkaiko, 1
"a 943 74 12 80

**AZPELETA**
San Frantzisko, 51
n' 943 74 12 38

**JOSEBA**
Pedro Muguruza, 29
15- 943 74 09 02
u 659 93 49 64

**URZELAI**
Santa Ana, 12-14
.13 943 74 13 76

## IGELTSERITZA

**ANTONIO MARKEZ**
Urasandi, 24
17 943 74 34 18

**ASKETA**
Osio, 7 DEBA
629 34 43 89

**JOSE LUIS MENDEZ**
Urasandi, 24
lzr 943 74 29 87
Ir 679 19 77 47

## ISOLAMENDUAK

**GLAS CONTROL S.L.**
Inpermeabilizazioak
Olaso 27, 47. pabiloia
1:r 943 74 30 94